

2003-01-05  
**kioskoa****Iban Arregi****Espainiako etxeei begira**

Euskal Herriko egunkariak Euskal Herriaren egoerari buruzko datuak ematean sortzen diren arazoez behin baino gehiagotan hitz egin dugu, Hego Euskal Herriko datuekin batera Espainiakoak jasotzen ditugulako ia beti; Iparraldeko datuak falta, beraz. Gainera, egunkari bakoitzak nora begiratzen duen, horren arabera ematen ditu dauzkan datuak, tituluetan eta. Herenegun etxebizitzaren salneurrien berri eman zuten Espainiako Tasazio Elkarteak, eta datuoi tarte egin zieten Euskal Herriko egunkariak ere. **El Diario Vasco** egunkariak EAEko hiriburu eta Espainiako enbargoaren nabarmendu zituen lehenengo orrialdean. **Diario de Navarra**-k berriz, Nafarroako datuak eta Espainiakoak nabarmendu zituen. Bi egunkari espainiazaleok, beraz, Espainiara begira, Euskal Herri baina gehiago. Baina okerrena da Euskal Herriko *egunkari ez espainiazale* batzuek ere Espainiara begira nabarmendu zituztela atzo etxebizitzari buruzko datuak. Esaterako, **Deia**-k. «Etxebizitza ia %15 igo zen 2002an, eta aurtengo inflazioa gaindituko duela uste da», zioen azaleko tituluaren egunkari horrek, igoera hori non gertatu zen zehaztu gabe. Baina Espainiako «ia %15eko» igoeraz ari zen. Eta **Diario de Noticias** ere, berdintsu. «Etxebizitza berriak %14,7 garestiago probintzietako hiriburuetan», zioen tituluaren egunkari horrek. Tituluaren azpian Espainiako mapa bat eta azken urteotan *nacional* mailan —Espainian, alegia— izan den igoera nabarmendu zuten. Azken batean, zera: Espainiako etxeen salneurriak, Euskal Herrikoenak baino nabarmenago hemengo egunkarietan ere.

**Egunkaria** 3.750. zenbakia**Ohorezko Lehendakaria:** Martin Ugalde**Administrazio Kontseiluko Lehendakaria:** Joan Mari Torrealdai**Kontseilari Ordezkaria:** Iñaki Uribe**Zuzendaria:** Martxelo Otamendi**Gerentea:** Begoña Zubelzu**Publizitatea:** Igor Sota**Egoitza Nagusia:** Martin Ugalde Kultur Parkea 20140 Andoain Tel.: 943300222 Erredakzio faxa: 943300255-943590354 Publizitateko faxa: 943300707**Webgunea:** www.egunkaria.com**Posta elektronikoa:** egunkaria@egunkaria.com**Publizitatea:** publi@egunkaria.com**IB** Balzorde Parekidea: 72664 E Lege Gordailua: SS 800/90 I ISSN 1134-640X OJDK IKUSKATURIKO HEDAPENA**ORDEZKARITZAK** ■ **Araba:** San Antonio, 20-1. ezker. 01005 Gasteiz Tel.: 945233872 Faxa: 945233873 Publizitatea: Tel.: 945131965**Nafarroa:** Iratxe Monasterioa, 45-13. esk. (Irritzi dorrea) 31011 Iruñea Tel.: 948178078-79 Faxa: 948178077 Tel.: Publizitatea: 948176686**Bizkaia:** Egia, Jenerala, 3-behea. 48010 Bilbo Tel.: 944104046 Faxa: 944103715 Tel.: Publizitate Orokorra: 944701199-80 Publizitate Lokala: 944701114**Lapurdi, Nafarroa Beherea, Zuberoa:** Pelletier 35, 64100 Baiona Tel.: 559593575 Faxa: 559257511**balkoia****Martxelo Otamendi****Itxaropen berde-horia**

**E**spainian 2004ko hauteskunde-etan gerta litekeenari begira, gauzak lotuta, ondo lotuta eduki nahi ditu Alderdi Popularrak. Lehendabizi, PSOE *Itun Antiterrorista*-ra eraman zuen (nahiz hasierako proposamena sozialistena izan), eta orain, presoen zigorrak gogortzeko proposamena onartarazi dio. Itxura guztien arabera, prentsaren bidez jakin zuten sozialistek popularren asmoen berri.

Aznarren alderdikoek badakite sozialistek ez dutela mugimendurik txikiena ere egingo Espainiako hauteskunde orokorrak baino lehenago; mugitu bezain pronto popularren makina mediatikoa gainera eroriko zaien beldur direlako. Hori baliatuta, urtebete geratzen zaie PPKoei sozialistak nahi duten lekura eramateko.

Sozialisten jokabide hori, mugimendu erabakitailerik ez egitea Moncloan agintean egongo diren edo ez jakin arte, taktika edo aitzakia hutsa da? Taktika hauteskunde horietara *traidore* itxurarekin ez iristeko, edo aitzakia popularrak irentsarazi dieten guztia zuritzea? Zer egingo dute Espainiako —eta Hego Euskal Herriko— sozialistek Espainiako herritarrek Moncloara joateko agindua ematen badiete, orain arte, oposizioan egon diren bitartean, egin ez dutena?

PPk, zer gerta ere, atzera-buelta zaila daukaten politikak onarrarazten dizkio PSOERI. Inork imajinatzen al

**AZNARREN JOKABIDEA****PPk atzera-buelta zaila daukaten politikak onarrarazten dizkio PSOERI****LULA BRASILEN****Jende asko dago, itxaropentsu, presidente berriak egingo duenari begira**

ditu sozialistak, behin Moncloan hila-bete batzuk igarota, presoen gehieneko zigor berriaren aferan atzera egingo, eta berriro gehieneko zigorra 30 urteko mugara jaisten?

Presoen gehieneko zigorra 40 urtera igotzean, Alderdi Popularra, berez, onartzen ari da gatazkak luze joko duela eta, konparazio batera, egunotan atxilotu eta kondenatutako presoak 30 urte barru presondegitik irtetea gatazka egoera bat aurkituko duela, eta hamar urte gehiago egon beharko duela zigortuta; 30 urte barru oraindik ere, PPKoen aurreikuspenen arabera, indarrean egongo den gatazkan presoak berriro sar ez dadin. Beste hitzekin esanda, Alderdi Popularra *kanpaina luze baterako* ari da prestatzen.

**Bush, bi gerra batera?**

Aspaldi honetan AEBetako goi agintari batek esan duen harropuzkeriarik handiena entzunda jakin dugu Washington prest dagoela Ipar Korearekin eta Irakekin, biek batera, gerra egiteko. AEBetako Defentsa idazkari Donald Rumsfelden ahotik ateratzen zen abisu-mehatxua; Etxe Zuriko *suhiltzaile ofizialak*, Colin Powell Estatu idazkariak, egun batzuetara ur hotza botata arindu zuzena. Powellek gerra hitza baztertuta, Ipar Koreari presio diplomatikoa egitea nahiago du.

Rumsfeldek salatu zuen Ipar Koreak baliatu nahi duela AEBak oso lanpetuta daudela Irakeko gerraren prestaketan, haien plan nuklearra berriro martxan jarri arma nuklearrak sortzeko. Rumsfeldena lehen abisua izan da Piongiangeko agintarientzat.

**Lula, Brasilgo itxaropena**

Ikusmira eta itxaropen handia sortu du Lula Brasilgo presidente berriaren aukeraketa prozesuak munduko bazter askotan. Batean eta bestean jarritako oztupoak ez zaizkio faltako, baina kanpainan agindutakoak betetzeko metodologia daukala frogatu beharko du. Askok daude berari begira, herri askorentzat alternatiba interesgarria izan litekeelako. Brasilen tamaina, geografikoa eta demografikoa, izan liteke eragozpen handienetako bat horrelako esperientzia berritzaileak abian jartzeko.

**martintxo**